



## AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPENA, "INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEKO EGUNA 2023"

Azaroaren 25ean, indarkeria matxista desagerrarazteko nazioarteko egunean, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta intzidentzia handiagoa duela azpimarratu nahi dugu, indarkeria-modu ikusezin eta normalizatuenetako bat den aldetik, urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Lasarte-Oriako datuak honako hauek dira 2023an:

- Indarkeria matxistako delituen atestatuak: 19
- Salaketak: 11
- Babes-aginduak: 9
- Gaur egun 49 kasu daude irekita, eta horietatik 38ek babes-aginduak indarrean dituzte.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskatoak eta nerabeak. Adingabeek sexu-askatasunaren kontra egindako delituen portzentajeak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek kausatzat jotzen dute generozko ikuspegia duen kalitatezko sexu-heziketarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana. Era berean, adingabeen artean generozko mito eta estereotipoak hedatzeari buruz ohartarazten da, bai eta haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidez sexuan goiz hasteari buruz ere, gehienbat ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du adingabeei egindako abusu eta eraso sexualen kasuetan garaiz esku hartzea.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rolaen imajinario desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeak, haien desirak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, eta are, haien forma muturrekoenetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal instituziook eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, emakumeek eta neskek bizitza-garapen osoa izan dezaten, libertatezko eta segurtasunezko kondizioetan. Zehazki, beren desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta bortizkeriarik gabe adieraz ditzaten, generozko estereotipoak eta aginduak alde batera utzita.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak garen aldetik, udalerrietan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzak baterako kondizioen alde aritzeko ardura dugu. Beraz, Lasarte-Oriako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Indarkeria matxista prebenitzeko herri-mailako estrategia artikulatzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, balibideak, zerbitzuak edo programak ezarri.
- Biktima adingabeen ingurunean sexu-indarkerien detekzioa eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, herri-mailako koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea, inplementatzea eta ebaluatzea.
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatzeko/hobetzea herritarrekin eta, bereziki, gurasoekin eta irakasleekin, guraso-elkartekin, generozko ikuspegia duen kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharri buruz.
- Hezkuntza ez-formaleko guneetatik adingabeenganako indarkeria matxistaren kontrako jarrerak indartuko dituzten hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea.



Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarri buruz.
- Mutikoei eta mutilei zuzendutako interbentzioak abian jartzea, afektibitatea, erlazio-ereduak, maskulinitate-ereduak, edo rol sexistak gainditzeko estrategiak eta parekotasuna lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxistaren forma berri horiei ere aurre eginez.
- Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren bitartez eta herrian bultzatutako beste ekimen batzuen bidez.
- Lasarte-Oriako udalerrian etengabeko hobekuntzako prozesu batean abian jarritako neurrien efikazia ebaluatzea Berdintasuneko Kontseiluak.

Zero tolerantzia errepikatzen dugu emakumeenganako edozein ekintza bortitzen aurrean, haren intentsitatea gorabehera. Desberdintasunean eta indarkeria matxistan ez dago mailarik.

Era berean, dei egiten diegu herritarrei azaroaren 25ean, Indarkeria Matxista Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Okendo plazan 12:00etan deitutako mobilizazioarekin bat egin dezaten.